

## **ERRESERBA BAT EGITEKO JARRAITU BEHARREKO URRATSAK**

Fagus Alkiza Interpretazio Zentroa bisitatzeko, aldez aurretik erreserba egitea beharrezkoa da. Erreserba prozesua erraza eta azkarra da, eta guztia online egiten da webgunearen bidez. Beheko pausuak jarraituta, minutu gutxitan egin ahal izango duzu zure erreserba.

### **1. Erreserba egin aurretik**

Erreserbak Fagus Alkizako webgunetik egiten dira: [www.fagus-alkiza.eus](http://www.fagus-alkiza.eus)

“Bisita gaitzazu” atalean 'Erreserba egin' botoia aurkituko duzu. Botoi hori sakatuta, erreserba sistemara sartuko zara.

### **2. Erabiltzaile kontua sortu**

Lehen aldiz erreserba egiten baduzu, erabiltzaile kontu bat sortu beharko duzu. Horretarako, 'Identifikatu' aukeran sartu eta 'Erregistratu hemen' sakatu. Sistemak datu batzuk eskatuko dizkizu (NANa, jaioteguna eta oinarrizko kontaktu datuak). Datu hauek beharrezkoak dira zentroa modu autonomoan bisitatzen denez, segurtasun arrazoiengatik.

### **3. Kontua aktibatu**

Erregistroa osatu ondoren, mezu elektronikoko bat jasoko duzu. Bertan agertzen den estekaren bidez zure pasahitza sortu eta kontua aktibatu ahal izango duzu. Ordutik aurrera, zure pasahitza izango duzu etorkizunean erreserba gehigo egin ahal izateko.

### **4. Bisita erreserbatu**

Kontuan sartuta, 'Bisita berria' aukeratu eta nahi duzun bisita mota hautatu. Ondoren, eguna eta ordua aukeratu ahal izango dituzu.

Ordutegi bakoitzean plaza kopuru mugatua dago. Koloreen bidez ikus dezakezu erabilgarritasuna:

- Berdea: plaza asko libre.
- Laranja: plaza gutxi geratzen dira.
- Gorria: ordutegia beteta dago.

### **5. Datuak bete eta ordainketa egin**

Ondoren, bisitan parte hartuko duten pertsonen kopurua adierazi eta ordainketa egin beharko duzu. Ordainketa txartelarekin edo Bizum bidez egin daiteke.

Ordainketa egin aurretik, erabilera arauak eta pribatutasun politika onartu beharko dituzu.

### **6. Erreserbaren baieztapena**

Ordainketa amaitzean, erreserba automatikoki baieztatuko da. Mezu elektronikoa jasoko duzu bisitaren informazio guztiarekin.

Email horretan sartzeko kodea ere jasoko duzu. Kode hori erabiliko duzu igogailua desblokeatzeko eta Fagus Alkizako 3. solairura igotzeko. Kontuan izan esleitu zaizun PINa sartu eta ondoren “Enter” (↵) tekla sakatu behar duzula.

Kodea bisita ordutik minutu batzuk lehenago edo geroago sartzeko baliagarria da.

**Mila esker!**